

MENDITXIKI-GIPUZKOA ERLAITZ^{ETA} PAGOGAÑA



Erlaitzerako bidean, atzean Aiako Harria



Erlaitzera igotzeko maldaren hasieran kortexeak aparkatzeko lekua dago. Erlaitzera igotzen den xendatik gotorlekuaren hondakinaren ondora igoko gara. XIX. mendean frantziar inbasioei aurre egiteko zortzi gotorlekuz osatutako proiektu bat abian jarri zuten, baina azkenean hiru besterik ez ziren eraiki: San Marko, Txoritokieta eta Guadalupeko San Enrike. 1891n hasi zituzten Erlaitzeko gotorlekua eraikitzeko lanak, baina hurrengo urtean eten egin zituzten. Gerora, eta muga zaintzeko asmoz, diktadura frankistak bunker batzuk eraiki zituen. Langileen barrakoiak izandakoei bizkarra eman eta Erlaitzeko ton-torrera doan xenda bilatuko dugu.

Tontorra utzi eta, Lapurriturriko lepora jaitziko gara maldan behera garo artean ibiliz. Aparkalekura heldu aurretik, Soroetako muga edo "Iheslarien Harria" izenez ezaguna den mugariaren ondotik pasako gara. Nonbait, XVIII. mendean muga zaintzen zuten soldaduei desertatzeak zekarren arriskuaz ohartzazteko eginga. Serapio Mugicaren ustez, harri hau XVIII. mendekoa da eta itxuraz ihesaldiak edo desertzioak ekiditeko jarri zen. Bertan hauxe jartzen du: "Hemendik ihes egitea bizitzarekin ordainduko da".

Igoera erraza da eta denbora gutxi beharko dugu Pagogañako aztarnen ondora iristeko. Erlaitz eta Endarlatsako dorreekin batera eraiki

zuten hirugarren karlistada amaitu eta muga beste matxinadetatik babesteko. Gerra Zibilean kalte handiak izan eta gero, abandonatu egin zuten, baina ondoren, II. Gerrate Mundialean, inguru hauek lagun askoren igarobide bihurtu zen. "Red Comète"ko kideek, lurrera botatako hegazkinetako pilotu aliatuei laguntzen zieten muga pasatzen. Haiei esker, ehunka iheslari salbatzea lortu zuten. Abiapuntura itzultzeko, Lapurriturriko lepora itzuliko gara eta, errepedea gurutzatu ondoren, honen paraleloan doan bidetik abiapuntura itzuliko gara.

LUZERA: 2,2 km

DESNIBELA: 103 m

TESTU ETA ARGAZKIAK



Mikel Arrizabalaga
(Donostia-Eibar, 1957)

Egunkaria, Berria eta Gara egunkarietan, Pyrenaica, Euskal Herria eta Nora aldizkarietan eta Euskadi Irratian mendiarekin zerikusia duten makina bat artikulu eta kolaborazio egin ditu. Euskal Herriko mendietan ez ezik, Pirinioak, Alpeak, Atlas eta Himalaiako mendietan ibilia da.

